

# PELLO APEZETXEA ZUBIRI

II IKERKETA BEKA

2023

OINARRIAK



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



BORTZIRIETAKO  
EUSKARA  
MANKOMUNITATEA



Deialdi honen xedea da soziolinguistika, dialektologia edota onomastika arloetarako ikerketa lan bat egiteko beka ematea eta Pello Apezetxea Zubiri euskaltzalea omentzea.

Beka deialdia antolatzeke lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Euskaltzaindiak. Lehen edizio honi 2023an eman zaio hasiera, eta deialdia lau urtean behin egiten da; hortaz, bigarren edizioa 2027an egiten da.

Bekaren gaineko argibide guztiak, informazio gehigarria, eskaera orria, tramiteak eta erabakiak mankomunitatearen webgunean ([esteka honetan](#)) eskuratzen ahal dira.

### 1. IKERGAIK

Ikerketa arloak honakoak izanen dira: soziolinguistika, dialektologia eta onomastika. Arlo horietan gai aunitz ikertzen ahal dira, bertzeak bertze honako hauek:

#### SOZIOLINGUISTIKA

- Tokiko hedabideen eragina euskararen biziberritzean.
- Helduen euskalduntzea: ikastetik erabilerarako jautzia udalerrri euskaldunetan.
- Immigrazioa, harrera, hizkuntza eta kultura aniztasuna eta euskara udalerrri euskaldunetan.
- Gaztelaniaren erabilera goiztiarra udalerrri euskaldunetako haurren artean.

#### DIALEKTOLOGIA

- Bortzirietako hiztegia.
- Bortzirietako hizkera administrazioan, hezkuntzan eta tokiko hedabideetan erabiltzeko oinarriak.

#### ONOMASTIKA

- Toponimia xehearen hedapena eta erabileraren sustapena.

Aukerako gai horiez gainera aipatutako hiru arloekin zerikusia duten bertzelako gaiak ere proposatzen ahal dira. Kasu horretan epaimahaiak baloratuko du ikerlan hori onartuzat emanen duen. Betiere baloratuko da ikerketak Bortzirietan aplikatzeko eskaintzen dituen aukerak (ikus balorazio irizpideak 10. puntuan).

### 2. IRAUPENA

Bekak zortzi hilabete iraunen du, bekaren esleipena argitaratu eta hurrengo egunetik aitzinera zenbatzen hasita. Bekadunak hala eskatzen badu,

hilabeteko luzapen bakarra eman ahal izanen du epaimahaiak, luzapena aski arrazoitua badago.

### 3. ESKATZAILEAK

Beka norbanakoek edota ikerketa egiteko berariaz sortutako lantaldeek hartu ahal izanen dute. Bigarren kasuan, ikerketaren zuzendari-arduraduna izendatu beharko da.

Eskatzaileek euskarazko C1 maila (Europako Erreferentzia Markoa) edo baliokidea den titulua aurkeztu beharko dute. Taldean aurkeztuz gero, baldintza hori taldekide guzietan bete beharko dute.

### 4. ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Eskaera eta dokumentazioa Bortziritako Euskara Mankomunitatearen egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztuko dira (<https://egoitzaelektronikoa.bortziriak.eus/carpetaciudadana/tramite.aspx?idtramite=1521>).

Helbide honetara eramanda edo posta zertifikatuz ere aurkeztu ahalko dira:

Bortziritako Euskara Mankomunitatea

Herriko Plaza 7, 2. 31790 Arantza

Edo urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein lekutan.

Eskaera egoitza elektronikoa ez den 39/2015 Legean aurreikusitako bertze bideren bat erabiliz aurkeztea erabakitzen bada, eskatzaileak eskaera igorri dela jakinaraziko dio mankomunitateari posta elektronikoz (euskara@bortziriak.eus), eskaerak aurkezteko epea bukatu eta 24 orduko epean, gehienez ere.

Eskaera posta bulego batean aurkeztuz gero, gutunazal irekian eginen da, posta zerbitzuko langileen data eta zigilua jar ditzaten ziurtatu aurretik.

Dokumentazioa 2023ko urriaren 29ko 23:59 arte aurkezten ahalko da.

Eskabideak ez baditu adierazitako baldintzak betetzen edo osatu gabe badago, 10 egun baliaduneko epean zuzentzeko eskatuko zaio eskatzaileari. Aipaturiko epean zuzentzen ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

### 5. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Hauxe da aurkeztu behar den dokumentazioa:

- Beka eskatzeko orria, behar bezala beteta ([eskuratu hemen](#)).
- Eskatzailearen nortasun agiriaren kopia; taldean aurkeztuz gero, taldekide guziena.
- Euskarazko C1 maila (Europako Erreferentzia Markoa) edo baliokidea den titulua. Lantaldean aurkeztuz gero, kide guzien titulua.
- Egilearen edo egile taldearen aurkezpen laburra, egoki iritiz gero curriculumaren kontu nabarmenenak ere aipatuz, eta batez ere hizkuntzarekin eta aztergai den gaiarekin lotutakoak zehaztuz.
- Ikerketa proiektuaren memoria, ahalik eta zehatzena (gehienez ere 15 orrialdekoa, 12 puntuko letra tamainarekin eta 1,5 puntuko lerroartearrekin idatzia). Memoriak gutienez ondoko puntuak azaldu beharko ditu:
  - Ikertuko den gaia.
  - Ikerketaren helburuak.
  - Ikerketa lanaren justifikazioa.

- Gaiaren aurrekariak eta egungo egoera.
- Materialak, baliabideak eta lan metodologia.
- Lan egitasmoa eta kronograma.
- Aurreikusitako emaitzak eta horien interesa.
- Bertzelako finantzabideak, baldin baleude.

### 6. HIZKUNTZA

Proiektua, azterlana, memoria eta gainerako dokumentazio guziaz euskaraz aurkeztuko dira. Euskararen zuzentasuna hagitik kontuan hartuko da aurkeztuko diren dokumentu guzietan.

### 7. BEKADUNAREN BETEBEHARRAK

- a) Deialdi honen atalen ondoriozko erabaki guziaz betetzea.
- b) Esleitutako beka onartzen dela idatziz jakinaraztea hamar egun balioduneko epean, jakinarazpen ofiziala jasotzen denetik aitzina zenbatzen hasita. Bekaren zenbatekoa itzultzeko konpromisoa hartuko du, arrazoiren bat dela medio aurreikusitako lan egitasmoa garatu ezin badu.
- c) Aurreikusitako lan egitasmoa garatzen jarraitzea, bekaren xedeari lotuta.
- d) Ikerketa lanak (ikerlanaren beraren bukaerako erredakzioak) bat etorri beharko du esleitutako beka motarekin. Ikerketa bera, aurkeztuko den azken memoria eta entregatuko diren euskarri guziaz euskaraz eginen dira. Horien idazkera funtzio komunikatibora, kohesio sintaktikora, koherentziara eta zuzenketa formalera egokituko da. Ikerketa lanean ikus-entzunezko materiala sortuz gero, hori ere entregatuko da bukaerako lanarekin batera.
- e) Entregatuko den bukaerako memoria horren ale bat paperean aurkeztuko da, orrialdeak

behar bezala zenbakituta eta koadernatuta; eta bertze ale bat euskarri digitalean. Lanaren luzera gutienez 75 orrialdekoa izanen da eta gehienez 150 orrialdekoa, eta 12 puntuko letra tamainarekin eta 1,5 lerroartearekin idatziko da.

f) Lana jatorrizkoa eta argitaratu gabea izanen da. Ez da onartuko bertze inondik moldatutako lanik, ezta aitzinetik bertze saririk hartu duenik ere.

g) Bekarako lana bukatutakoan, egileak konpromisoa hartzen du egindako lanaren zabalkundean parte hartzeko, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearekin adostuta.

### 8. BEKAREN ZENBATEKOA

Deialdi honetako beka zazpi mila eurokoa (7.000,00 €) da. Gastu hori Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen 1 3350 4890003 Pello Apezetxea Zubiri Ikerketa Beka aurrekontu aplikazioari dagokio.

Ikerketaren ondorioz sor daitezkeen gastu guziaz esleipendunak ordainduko ditu.

### 9. ORDAINTZEKO MODUA

Ordainketa honela eginen da:

- Kopuru osoaren % 40, mankomunitateak bekadunaren onarpenaren jakinarazpena jaso eta 10 egun balioduneko epean.
- Kopuru osoaren % 30, beka eman eta lau hilabeteko epean, bekadunak ikerketaren aurrerapenei buruzko memoria aurkeztu eta epaimahaiak ebaluatu ondotik.
- Gainerako % 30a, bukaeran, lana aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman ondotik. Lana amaituko ez balitz, oinarri hauetako 11. puntua (itzulketak eta kalte ordainak) hartuko litzateke oinarritzat.

### 10. EPAIMAHAIA ETA IRIZPIDEAK

Epaimahai batek ebaluatuko eta aukeratuko ditu proiektuak. Honako hauek osatuko dute: Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakaria edo hark izendatutako ordezkoa; Euskaltzaindiak izendatutako kidea edo ordezkoa; mankomunitateak izendatutako kidea edo ordezkoa; idazkari lanetan mankomunitateko euskara teknikaria edo haren ordezkoa arituko da, botorako eskubiderik gabe. Epaimahaiak bertze aholkularien iritzia eskatzea erabakitzen ahalko du.

Epaimahaiak honako balorazio irizpide hauek izanen ditu beka esleitzeko (guzira 100 puntu):

- Proiektuaren egokitasuna deialdiaren ikerketa arloekiko: gehienez ere 30 puntu.
- Proiektuaren argitasuna, kalitatea, erakargarritasuna, metodologia eta entregatu beharrekoak: gehienez ere 30 puntu.
- Proiektuak dagokion inguruko errealitatearekiko hurbiltasuna eta aukeratutako eremuan nahiz Bortzirietan aplikatzeko bideragarria izatea: gehienez ere 25 puntu.
- Eskatzaileak edo lantaldeak ikertuko duen arloaren inguruan egindako ibilbidea eta esperientzia: gehienez ere 15 puntu.

Baztertuak geldituko dira 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak.

Epaimahaiak esleipen proposamena eginen du, emandako balorazioa oinarri hartuta. Proposamen horretan, adieraziko da zein proiektu aukeratu den, bai eta erreserbako eskaeren zerrenda bat ere. Epaimahaiak saria eman gabe utz dezake, aurkeztutako proiektuek gutieneko kalitate ezaugarriak betetzen ez dituztela iritziz gero.

Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakariak, epaimahaiaren proposamena ikusirik, bekaren emakidaren ebazpena eginen du, edo, hala proposatzen bada, beka esleitu gabe gelditzea eta espediente artxibatzea ebatziko du.

Ebazpena zuzenean jakinaraziko zaie eskatzaileei, 39/2015 Legearen 40. eta 46. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, eta mankomunitatearen web orrian argitaratuko da..

Deialdi honetan parte hartuz gero, erabat onartuko dira oinarri hauek eta aukeraketaren emaitza.

Oinarrietan aurreikusi gabeko egoerak epaimahaiak ebatziko ditu.

### 11. EZ BETETZEA ETA ITZULTZEKO PROZEDURA

Ikerlanaren amaierako memoria entregatzeko azken epea betetzen ez bada edo epaimahaiaren iritziz nahikoa kalitaterik ez badu, justifikazio edo gauditu ezinezko arrazoirik gabe, mankomunitateak saria itzultzeko errekerituko dio sarituari. Epaimahaiak erabakiko du emandako arrazoiak nahikoak diren edo ez.

Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako lana aurkezteko azken epea bukatu baino lehen, eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aitzinetik errekeritu gabe, bekadunak bere borondatez saria itzultzen badu, sarituak ordura arte jasotako zenbatekoa eta dagozkion berandutze tasak itzuli beharko ditu. Mankomunitateak berandutze tasak kalkulatuko ditu, Dirulaguntzen Lege Orokorren 38. artikuluari jarraituz.

Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako lana entregatzeko azken epea bukatuta mankomunitateak errekeritu ondoren saria itzultzen

delarik, sarituak ordura arte jasotako zenbatekoa itzuli beharko du, dagozkion berandutze interesak ordaintzeaz gain.

### 12. LANAREN JABETZA

JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK.- Beka eskatzen duen pertsonak, bere proiektua bekaren irabazlea bada, berariaz onartzen du, proiektuaren emaitzei dagokienez, egindako emaitzen ustiapen eskubideak uztea, euskarria edo formatua edozein izanda ere. Zehazki, eskubide hauek utziko ditu: erreproduzitzeko eskubidea, digitalizazioa, banaketarako eskubidea, eraldatzeko eskubidea, alokairua eta mailegua barne, eta komunikazio publikorako eskubidea, komunikazio orokorreko sareetan eskuragarri jartzea barne, eskubideak indarrean dauden bitartean, lurralde eremu global baterako, modu eksklusiboan, hirugarrenei eskubideak uzteko aukerarekin, eta doakoa, aleak sustatu, aurkeztu, erreproduzitu eta banatzeko, web eta gizarte sareetan argitaratzeko, eta hezkuntza eremuetarako. Aipatutakoa ez den bertze edozein ustiapen egiteko, egilearen baimena beharko da.

Eskubide moralak hertsiki betez, egileari uneoro aitortuko zaio proiektuaren bekaduna dela.

BERTZE ESKUBIDE BATZUK.- Lehen aipatutako eskubideak Bortzirietako Euskara Mankomunitatearenak badira ere, lehen bi urteetan eskubide horiek erabiliko ez balitu, egileak edo egileek bere edo beren kabuz edo bertze erakunderen batekin argitaratzeko eskubidea baliatu ahalko dute. Kasu horretan idatzizko jakinarazpena igorri beharko dute mankomunitatera bai eta argitaratutako lanaren 2 ale eman ere.

Lanaren emaitzan argi azaldu behar da bekaren laguntzarekin gauzatu dela, modu honetan:

"Lan hau egin da Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 2023an emandako Pello Apezetxea Zubiri ikerketa bekaren laguntzarekin".

### 13. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Beka eskaera aurkeztean, eskatzaileak aitortzen du oinarri honetan ezarritako baldintza guztiak bete egiten dituela eta oinarriek diotena goitik behera onartzen duela. Era berean, adierazten du, eskaeran jasotako datu pertsonal horiek bere baietzarekin jaso direla eta onartu egiten duela datu horiei tratamendu automatizatua ematea eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearenak diren eta behar bezala baimenduta dauden fitxategietan jasotzea; eta baimena ematen du datu horiek gai honi lotutako jakinarazpenen kudeaketan bakarrik erabil daitezen. Hala ere, datu pertsonalak babesteko araudi orokorrean aurreikusitako kasuetan, bertze administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei datuok helarazi edo utzi ahal izanen zaizkie.

### 14. HELEGITEAK

Deialdi honen, oinarrien eta horiek betetzeko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka, honako helegite hauek jarri ahal izanen dira, nahi izanez gero:

- Berraztertze errekurtsioa jartzea administrazio-egintza egin duen organoari, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, hala badagokio, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- Gora jotzeko helegitea Nafarroako Administrazio Auzitegian, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hilabeteko epean.

- Administrazioarekiko auzi-helegitea Iruñeko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

### 15. ARAUBIDE JURIDIKOA

Oinarri hauetan ezarrita ez dagoen guztiari dagokionez, honako lege eta araudi hauek aplikatuko dira:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntza Orokorrei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena.
- 3/2018 Legea, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko.
- Gainontzeko legedi aplikagarria.

Arantzan, 2023ko ekainaren 27an



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



BORTZIRIETAKO  
EUSKARA  
MANKOMUNITATEA

## PELLO APEZETXEA ZUBIRI

Goizueta, 1932 - Etxalar, 2022. Arlo aunitzetako ikertzailea, ekintzailea eta sustatzailea izan zen. Baina bereziki nabarmentzekoa da euskara babesteko, ikertzeko eta sustatzeko egin zuen lana. 2004. urtean ohorezko euskaltzain izendatua izan zen.

Bere bizitzaren zatirik handiena Bortzirietan, Etxalarren, eman zuen, eta ezinbertzeko erreferentea da eskualdean euskara biziberritzeko prozesuan. Etxalarren bertan, ikastolaren sorreran, eskolan euskarazko hezkuntza ezartzeko prozesuan; eskualdean, helduen euskalduntze-alfabetatzean, tokiko komunikabideetan, etab.

Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen sorreran bultzatzaile nagusietako bat izan zen. Geroztik ere, mankomunitatearen ibilbide osoan, osasunak eragotzi zion arte, Etxalarko Euskara Batzordeko kide eta Aholkularitza Batzordeko kide izan zen. Hortaz, mankomunitateak Pello Apezetxea zena omentzeko xedez antolatu du ikerketa beka hau.



Argazkia: Ttipi-Ttapa